

2024KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko uztailaren 23an, arratsaldeko 19:04tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta ezohiko osoko bilkura honi ohiko bilkura bati dagokion tratamendua emateko arrazoiak azaldu ditu. Izan ere, azken asteartea (Osoko Bilkuraren ohiko bilkurak egiteko erabakitako eguna) bi jaiegunen artean erortzen denez (uztailaren 25 eta 31) eta, horregatik, Udalbatzako kide asko, Idazkaria barne, oporretan egongo direnez, Udalbatza osatzen duten talde politikoen artean adostu da Osoko Bilkura aurreratzea eta horri ohiko bilkura bati dagokion tratamendua ematea, korporazioko kideen kontrol-eskubideak eta -eginkizunak bermatuta gera daitezen, egindako dekretuen eta Alkatetzaren ebazpenen bidez altxatutako eragozpen-txostenen kontu emanez, mozioak sartuz eta galde-erregutarako txanda emanez.

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- 2025. URTERAKO ANOETAKO JAI EGUNAREN IZENDAPENA BERRESTEKO PROPOSAMENA.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailaren apirilaren 23ko 49/2024 Dekretuak (2024.05.08ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu zuen.

Aipatutako dekretuaren 2.2 artikuluan adierazten duenez, *“dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egin beharko dute proposamena udalek, eta dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali”*.

Hala, Alkateak, 2024ko uztailaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko lurralde-ordezkaritzari helarazitako idatzi bitartez, **2025eko ekainaren 19a, Gorpuzti eguna**, proposatu zuen Anoetako Udalerriko jaieguntzat.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Berrestea Alkateak 2024ko uztailaren 3ko idatzi bitartez proposatutako 2025. urterako Anoetako jai egunaren izendapena.

BIGARRENA. 2025eko ekainaren 19a, Gorpuzti eguna, Anoetako Udalerriko jaiegun izendatzea 2025. urterako.

3.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA 2024. URTEAKO ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko ekainaren 25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua onartu zen, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituen (2024ko ekainaren 27ko BOE).

Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokienez, aipatutako Errege Lege Dekretuak, 6. artikuluan, hau arautzen du:

“...

6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.

1. 2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2023ko abenduaren 31n indarrean



ANOETAKO
UDALA

zeudenen aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2. Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

...”.

Aurrekoa ikusita, EUDELeK, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, ondorengo proposamena egin digu euskal udalei:

“...

Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2024ko KPI harmonizatuaren datuak Estatistikako Institutu Nazionalan (INE) argitaratu arte zain egon beharko da, eta geroago onartuko da igoera horren aplikazioa, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez. Akordio hori BOEn argitaratuko da, eta EUDELeK unean-unean emango dizue horren berri.

...”.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udaltzarak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 2ko igoera, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean,



ANOETAKO
UDALA

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez.

Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

BIGARRENA. Onartzea 6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarria, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu.

Igoera gehigarri eta finkagarri hori aplikatu ahal izateko, lehendabizi Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu behar ditu eta Ministroen Kontseiluak igoera horren aplikazioa onartzeko erabakia ebatzi eta BOEn argitaratu beharko du.

4.- UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

2023ko abenduaren 27an argitaratutako 247. GAOen ordenantza fiskalen aldaketan behin betiko testua argitaratu zen. Aldatutako ordenantzen artean, Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala zegoen. Ordenantza horretan egindako aldaketak bi izan ziren: batetik, 7. artikulua berria, hobari berri batzuk jasotzen zituen; eta, bestetik, eranskina, ondorengo testuarekin:

“...

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra1,9

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Kategoriak Indiz.Kod.Kaleak, plazak edo auzoak

<i>Lehenengoa</i>	<i>K</i>
	<i>A</i>
	<i>T</i>
<i>Bigarrena</i>	
	<i>B</i>
	<i>A</i>



ANOETAKO
UDALA

Gainerako bideak

K

A

R

Indizea.....1,9
...”.

2023an indarrean zegoen ordenantzak, aldiz, ondorengo jasotzen zuen:

“...

ERANSKINA

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,48

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Kategoria: bakarra

Indizea: 1,48

...”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun sailetik Anoetako Udalari jakinarazi zitzaion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen ordenantza fiskalean onartutako aldaketek, nahiz eta legezkoak izan, igoera nabarmena suposatzen zutela aurreko ekitaldietan indarrean zeuden ordenantzen arabera kobratzen zen zergarekiko, eta galdetu zitzaion ea aldaketa drastiko hori borondatezkoa zen edo, aitzitik, akats baten ondoriozkoa.

Jakinarazpen horren harira, Alkatetzak, 2024ko uztailaren 16an, ondorengo probidentzia eman zuen:

“...

2024. urterako Udal honek Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exekuziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala aldatu zuen.

Batetik, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzaileko koefizienteei 1,9 gehitu zitzaion.

Bestetik hainbat onura onartu ziren ondorengo baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoei, beti ere onura bat baino gehiago izan arren gehienez %60ko hoberia aplikatuz:

JARDUERA	ZENBATEKOA
Kooperatibak	%50
Negozio hasi berriak	%50
Enplegua sortzeagatik (plantilaren %10eko gehikuntza)	%40
%100 Energia berriztagarriak	%50

Gipuzkoako Aldundiko Ogasun sailetik Anoetako Udalari jakinarazi zitzaion Ordenantza fiskaletan onartu ziren aldaketek igoera nabarmena suposatzen zuela eta ea nahita burututakoa galdetu zitzaigun.

Jakinarazpen honen harira, onartutako igoeraren ondorioak neurtu ondoren jabetu gara Ordenantza Fiskala aldatzearen arrazoia eta planteamenduak, ez duela bat egiten aldaketa honek suposatzen duen igoerarekin. Izan ere, Ordenantza Fiskala igotzearen arrazoia azken urteetan ukitu gabe zegoen ordenantza fiskala gorantz eguneratzea zen eta ez praktikan suposatu duen igoera neurrigabea aplikatzea.

Hona hemen jarduera ekonomiko ezberdina duten 3 enpresei aldaketak suposatzen dionaren alderaketa bat:

NUM.ACT.	DNI	RAZON SOCIAL	2023ko koefizienteak	Indarrean dauden koefizienteak	Onartu nahi ditugunak
			1,48	1,90	1,55
0074721L	A20087631	DIONISIO ORMAZABAL SA	1.477,62 €	2.435,27 €	1620,70 €
0403423T	A20050712	ORBINOX SA	4.223,75 €	6.961,16 €	4632,74 €
499462B	U75201608	UTE TOLOSALDEA RSU 2018	359,84 €	593,06 €	394,69 €

Alderaketa taulan argi ikusten da 2024. urterako onartu genuen 1,9ko aldaketak %60tik gorako igoera suposatzen duela, zeina ez zen Udalak onartu zuen aldaketarekin lortu nahi zuena. Aldiz orain planteatzen dugun 1,55eko aldaketak %10aren bueltako igoera suposatzen du, zeina Udalaren asmoetara, udaleko jarduera ekonomikoaren ezaugarrietara eta ehun ekonomikoaren egoerara hobe egokitzen da.

Beraz, jakinik ez zela Anoetako Udalaren asmoa horrelako igoera ematea zerga honetan eta ikusita indarrean dagoen Ordenantza bere horretan uzteak Udalerriko jarduera ekonomikoan sortuko duen ezinegona eta kaltea ez dela onuragarria Udalarentzat.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzeko espedienteak hastea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, ezarritako izapideen arabera.

Bigarrena. Udal honetako Idazkari-kontuhartzaileak egin ditzala zerga hori ezartzeko beharrezkoak diren txosten juridiko eta ekonomikoak, eta behin Osoko Bilkuran onartu ondoren, egin dadila dagokion izapidea, indarrean sartu arte.

Hirugarrena. Beharrezkoak diren aldaketak egin ondoren 1,55eko koefizienteak indarrean jarri daitezela 2024 ekitaldian.

...”.

Beraz, 2024ko uztailaren 16an egindako probidentzia bidez, Alkatetzak eskatzen du:

- Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzeko espedientea hastea.

- Proposatutako aldaketa ondorengoa litzateke:

- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra 1,55era aldatzea (orain, 1,9koa).
- Kokapen-indizea 1,55era aldatzea (orain, 1,9koa).

-1,55eko gehikuntza-koefiziente eta kokapen-indize berriak 2024 urteko ekitaldian aplikatzea, atzeraeraginezko ondorioekin.

Proposamen horren ganean, eta Alkatetzak 2024ko uztailaren 16an egindako probidentzia bidez agindutakoaren arabera, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a) artikuluan ezarritakoa betez, Idazkari Kontuhartzaileak kontrako txostena egin zuen 2024ko uztailaren 17an, honako ondorio hauek jasota:

“...

- *Posible da Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzea, dagokion legezko prozedura jarraituta.*

- *Proposatutako aldaketak, alegia, finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra eta kokapen-indizea 1,55era aldatzekoak, 1/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 11. artikulua araberakoak dira eta, beraz, legezkoak.*

- *Behin Ordenantza Fiskalaren aldaketa goian azaldutako prozeduraren arabera izapidetuta, indarrean jarriko da, baina bertan jasotako aldaketek ez dute eraginik izango 2025eko zergaldira arte, hots, ez dira aplikagarriak izango 2025eko urtarrilaren 1era arte, aurretik egindako beste aldaketen bati kalterik egin gabe.*

- *Proposatzen diren aldaketak 2024ko zergaldira aplikatzea legez kontrakoa litzateke.*

*Beraz, Idazkaritza honek Alkatearen proposamenaren **kontrako txostena egiten du**, zehazki, Ordenantza Fiskalari egindako aldaketak 2024ko ekitaldira atzeraeraginezko ondorioekin aplikatzeko proposamenari dagokionez.*

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenaren edukia azaltzeak bukatutakoan, Jaime Peon zinegotziak Alkateari galdetu dio ea enpresentzako kostuak indize berriekin kalkulatu dituen, eta Alkateak baietz erantzun dio, aurreko ekitaldiko indizeak, ekitaldi honetakoak eta proposatzen direnak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoen taula konparatiboa egin duela. Jarraian, Nuria Carbonell zinegotziak Alkateari galdetu dio ea gauza bera gertatu den beste udalerriren batean. Alkateak erantzun dio, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariaren arabera, beste udalerrri batzuetan gertatu dela, baina ez dakiela zer irtenbide hartu diren udalerrri horietan. Azkenik, Nuria Carbonellek eskatu du gerora gertatutakoa kontuan hartzeko ordenantza fiskalak aldatzean edota onartzean, batez ere feriatzaileek ordaindu beharreko tasak eta zaborren tasak ezartzen dituztenak.

Interbentzioak amaitutakoan, Udalbatzak proposamena bozkatu du eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Eloseggi Artola (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 5 bozka.

ABSTENTZIOAK: Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea), Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea), Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea) eta Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea). Guztira, 4 abstentzio.

Ondorioz, gehiengo soilez onartua izan da ondorengo

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, ondorengo testuarekin:

“...

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra1,55

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Kategoriak Indiz.Kod.Kaleak, plazak edo auzoak

<i>Lehenengoa</i>	<i>K</i>
	<i>A</i>
	<i>T</i>

Bigarrena

	<i>B</i>	
	<i>A</i>	
<i>Gainerako bideak</i>	<i>K</i>	
	<i>A</i>	
	<i>R</i>	
<i>Indizea</i>		<i>1,55</i> ...”.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, dagokion behin betiko erabakia hartuko da, aurkeztutako erreklamazioak eta ordenantzaren behin betiko idazketa ebatziz. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, ordura arte behin-behinekoa, osoko bilkuraren erabakirik behar izan gabe, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Behin betiko (esanbidezkoa edo isilbidezkoa) onesteko erabakia eta zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta une horretan jarriko da indarrean. Era berean, behin betiko onespene-erabaki hori alegazioak aurkeztu dituzten interesdunei jakinaraziko zaie, eta interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

BOSGARRENA. Behin ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa aurreko lerrokadan aipatutako tokietan argitaratuta, egindako aldaketak atzeraeraginezko efektuekin aplikatuko zaizkio 2024 urteko zergaldiari eta bertan sortutako zerga-betebeharrei.

5.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000010-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000010-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko uztailaren 18ko probidentziaren edukia azaldu du.

Alkatetzak egindako kreditu transferentzien proposamena ondorengoa da:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.692.414.00.01 2024	HERRI-BIDEETAN EGIN BEHARREKO LANAK	8.000,00	1.865,29	6.134,71
1 0000.480.230.00.00 2024	BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	5.370,00	3.160,00	2.210,00
	GUZTIRA	13.370,00	5.025,29	8.344,71

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.600.336.00.01 2024	BASAGAINGO LURSAIL ZATI BATEN DESJABETZA	0,00	1.865,29	1.865,29
1 0000.470.335.00.01 2024	DIRULAGUNTZA. GU ERE BERTSOTAN. IKASTOLA	2.160,00	2.160,00	4.320,00
1 0000.481.330.04.00 2024	DIRULAGUNTZA. TOLOSALDEKO ARRAUN KLUBARI	0,00	500,00	500,00
1 0000.481.230.99.01 2024	DIRULAGUNTZA: GERNIKA-PALESTINA ELKARTEA	0,00	500,00	500,00
	GUZTIRA	2.160,00	5.025,29	7.185,29

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostena azaldu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoarekin, baita Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauekin ere.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA



ANOETAKO
UDALA

LEHENENGOA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

BIGARRENA. Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa delako.

6.- 2022-2024 URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak azaldu du Anoetako Udalak, 2021eko abenduaren 30ean eginiko Udalbatzarrean, 2022/24 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa behin behinean onartu zuela, eta behin betiko testua 2022ko apirilaren 19ko 72. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Geroztik, lautan onartu da hura aldatzeko proposamena: lehena, 2022ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anoetako Herri Ikastolan DBH 1eko HABI proiektua aurrera eramateko diru-laguntza izenduna onartzeko, baita dirulaguntzen plan estrategikoen ondoriozko aldaketa ere egiteko; bigarrena, 2022ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anitz Dantza Taldearen eta Su-Berri Pilota Elkartearen dirulaguntza lerroak aldatzeko, eta Anoetako Herri Ikastolaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko, sexu heziketa programa garatzeko, baita Anoetako San Joan Bataiatzailearen parrokiaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko ere; hirugarrena, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, batetik, “Gu ere bertsoan” ekimenerako dirulaguntzaren kopurua aldatzeko, eta bestetik, Alkartasuna Bar, S.L. elkarteari elektrizitateko ordainagiriak ordaintzeko laguntza ekonomiko gehigarria emateko dirulaguntza lerroa sortzeko; eta laugarrena, 2023ko uztailaren 18an egindako ohiko Osoko Bilkuran, batetik, Anitz dantza taldearen aldeko dirulaguntzaren lerroa aldatzeko eta Kuku pilota Elkartearen, Almitza Segar Elkartearen, Irakin proiektuaren eta Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familien aldeko dirulaguntzen lerroak sortzeko.

Oraingoan, 2022-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko arrazoiak aurretik ebatzitako kreditu-aldaketetan azaldukoak dira:

1. Dirulaguntza Gernika-Palestina Elkarteari

Alkateak, 2024ko uztailaren 18an egindako txostenean, honako dirulaguntza lerro berria sartzeko proposamena egin zuen:

“...

DIRU-LAGUNTZA GERNIKA-PALESTINA ELKARTEARI URTEKO JARDUERAK ANTOLATZEKO

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: Gernika-Palestina Elkartearen urteko jarduerak.

Gernika-Palestina Elkartea (G95204160 IFK zenbakiduna) lan handia egiten ari da Israelgo estatua Palestinan eragiten ari den genozidioa ezagutarazteko eta salatzeko. Horretarako, mota desberdinetako sentsibilizazio jarduerak (elkarretaratzeak, manifestazioak, kultur ekimenak, prentsurrekoak etab.) ari da antolatzen etengabe, palestinarrei elkartasuna adierazteko une latz hauetan.

Udalarentzat garrantzitsua da Israel egiten ari den txikizioaren aurrean ahotsa altxatzea, erasoak lehenbailehen gelditu daitezen aldarrikatzea, eta palestinar herriari gure babesa eta euskarria erakustea, bere eskubideen defentsan.

Hauek horrela, proposatzen dut 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan 500 euroko diru-laguntza onartzea Gernika-Palestina Elkartearen aurtengo gastuei aurre egiteko, eta %75a (375 €) aurreratzea orain, eta gainontzeko %25a (125 €) ordaintzea justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu ondoren, betiere urriaren 31 baino lehen:

Dirulaguntza lerroa: Gernika-Palestina Elkarteari

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Alkatetza</i>
Sektore hartzaileak	Gernika-Palestina Elkartea
Helburuak	Gernika-Palestina Elkarteari laguntzea urteko jarduerak aurrera eramaten
Lortu nahi diren ondorioak	Gernika-Palestina Elkartea aktibo eta dinamikoa izatea
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diru-laguntza ematen badu ere, beste diru-sarrerak ere lortzen ditu Gernika-Palestina Elkarreak.
Ekintza Plana	Diru-laguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, diru-laguntzaren %75a aurreratu, justifikazioa eta %25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Elkarreak memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzian zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1.0000.481.230.99.01.1065	Gernika-Palestina Elkartea	Urteko jardueretarako	500 €	Izenduna	

2. Dirulaguntza Tolosaldeko Arraun Klubari

Kultur Dinamizatzaileak, 2024ko uztailaren 16an egindako txostenean, honako dirulaguntza lerro berria sartzeko proposamena egin zuen:

“...

DIRU-LAGUNTZA TOLOSALDEAKO ARRAUN KLUBARI URTEKO JARDUERAK ANTOLATZEKO

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: Tolosaldeako Arraun Klubaren urteko jarduerak.

Tolosaldeako Arraun Klubak (G20871521 IFK zenbakidunak), lan handia egiten du arraunaren kirola sustatzen eskualdean, eta 2018an Tolosaldeako emakumezkoen arraun taldea sortu zuen (15 urtetik aurrerako neskez osatua), Tolosaldeako hainbat udaletako diru-laguntzari esker, Anoetako Udalarena barne. Hortaz, Anoetako Udalak ebatzi zuen 1.030,50 euroko diru-laguntza ematea (hau da, 0,5 euro biztanleko, Klubak eskatu bezala), 2018ko martxoaren 28ko dekretu bidez .

Udalarentzat garrantzitsua da herritarren artean jarduera fisikoa oro har sustatzea, baina bereziki emakumeen artean, emakumeen kolektiboa kirola mailan bigarren maila batean egon den zerbait izan baita urte askoan, eta emakumeen ahalduntze bidean urrats garrantzitsua baita ikusgarritasuna ematea honi. Horren harira, aipatzea Gipuzkoako Foru Aldunditik ere kanpainak antolatzen direla emakumeen artean jarduera fisikoa sustatzeko.

Hauk horrela, proposatzen dut 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan 500 euroko diru-laguntza onartzea Tolosaldeako Arraun Klubaren aurtengo gastuei aurre egiteko, eta %75a (375 €) aurreratzea orain, eta gainontzeko %25a (125 €) ordaintzea justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu ondoren, betiere urriaren 31 baino lehen:

Dirulaguntza lerroa: Tolosaldeko Arraun Klubari	
<i>Eskumen arloa</i>	<i>Kultura</i>
Sektore hartzaileak	Tolosaldeako Arraun Klubak
Helburuak	Tolosaldeako Arraun Klubari laguntzea urteko jarduerak aurrera eramaten
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosaldeako Arraun Kluba aktibo eta dinamikoa izatea
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diruz laguntzen du, eskualdeko beste udal batzuekin batera, eta gainontzekoa Tolosaldeako Arraun Klubak berak jartzen du.
Ekintza Plana	Diru-laguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, diru-laguntzaren %75a

	aurreratu, justifikazioa eta %25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Klubak memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
	Tolosaldeko Arraun Kluba	Urteko jardueretarako	500 €	Izenduna	

...”.

3. Ekarpena herriko komertzioak sustatzeko

Alkateak, 2024ko uztailaren 18an egindako txostenean, honako dirulaguntza lerro berria sartzeko proposamena egin zuen:

“...

EKARPENA HERRIKO KOMERTZIOAK SUSTATZEKO

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: Herriko merkataritza bultzatzeko bono kanpaina.

Herriko merkataritzak bere biziko garrantzia du herri baten eguneroko bizitzan. Bertako produktuak, gertuko salmenta, lanpostuak sortzea eta herritarren arteko sozializazioa bultzatzen dutelako besteak beste.

Udalarentzat garrantzitsua da herritarrek herriko komertzioetan egitea beraien erosketak, bestela pixkanaka herriko komertzioak itxi eta bertako merkataritza hiltzen joango da, horrek herriarentzat dituen ondorio kaltegarriekin.

Hau horrela izanik, 2024 ekitaldiko aurrekontuetan 5.000 €-tako ekarpena onartu zuen Udaltzaren herriko komertzioak sustatzeko. Hala ere ekarpen hau ez dago oraindik 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan onartua.

Horregatik, ekarpen hau 2022-24 Dirulaguntzen Plan estrategikoan onartzeko proposatzen dut.

Ekarpen lerroa: Herriko komertzioak sustatzeko programa

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Alkatetza</i>
Sektore hartzaileak	Herriko merkataria
Helburuak	Herriko merkataritza sustatzea
Lortu nahi diren	Herritarrek herriko komertzioetan kontsumitzea

ondorioak	
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Bono laguntza bidez egingo da, kanpainan parte hartu nahi duten merkatarari eta komertzioekin elkarlanean.
Ekintza Plana	Parte hartu nahi duten komertzioetan bonoak banatuko dira kopuru berdinetan eta komertzio hauetan kontsumitzen duten herritarren arabera laguntza ekonomikoa jasoko dute bono bakoitzeko.
Jarraipena eta ebaluazioa	Parte hartzen duten merkatarari eta komertzioekin batera egingo da jarraipena eta ebaluazioa.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1.0000.480.431.00.01 166	Herriko merkataria	Herriko merkataritza sustatzea	5.000 €	Izenduna	

...”.

Behin Alkateak proposamenak irakurtzeaz bukatutakoan, Idazkaritzak Alkatetzak egindako proposamenetan egin beharreko zuzenketa batzuk azaldu ditu, besteak beste, Tolosaldeako Arraun Klubari eman beharreko dirulaguntzaren aurrekontu-partidaren falta zein herriko komertzioak sustatzeko programaren proposamenean “ekarpen” eta “izenduna” kontzeptuen erabilera desegokia.

Zalantzak argituta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Gernika-Palestina Elkartearen, Tolosaldeko Arraun Klubaren eta herriko komertzioak sustatzeko herriko merkatarien aldeko dirulaguntzen lerroen sorrera, proposatutako eran.

BIGARRENA. 2022-2024 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta behin behinean onartzea.

HIRUGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia

probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.

7.- UDALAREN ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARRERA PROPIOAK BIDE EXEKUTIBOTIK BILTZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari, eta honek azaldu du puntu honetan onartu nahi den hitzarmena Udalaren zuzenbide publikoko diru-sarrera propioak bide exekutibotik biltzeko Anoetako Udalari laguntza emateari buruzkoa dela.

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izen eta kontura, foru zerga sistema eta, oro har, beste herri administrazio eta ente batzuen zuzenbide publikoko baliabideak eraginkortasunez aplikatzea, horien kudeaketa legez edo hitzarmen bidez agintzen zaionean.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Era berean, 8. artikulua dio udalak eta Foru Aldundia lankidetzan arituko direla kasuan kasuko hitzarmena izenpetuz tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.

Zentzu berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 3.3 artikulua dio Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste administrazio publiko batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezaketela beren gain Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenak formalizatuz. Erregelamendu horren 5. artikulua esaten du tokiko entitateak arduratuko direla zorrak biltzeaz, horien kudeaketa esleitu bazaie; eta honelaxe bilduko direla: a) entitateek beraiek bilduko dituzte bilketako eskumenak esleitzeko arauetan jasotakoaren arabera, edo b) zorren esparruko beste lurralde ente batzuek bilduko dituzte, haiekin hitzarmena formalizatu bada edo ahalmen horren eskuordea eman bazaie.

Bestalde, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 11. artikulua xedatzen duenez, Administrazio organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jardura materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko entitateen gomendio utzi daitezke, jardura horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jardura horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.



Beraz, hitzarmenaren helburua da kudeaketa gomendio bat formalizatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga-bilketaren kudeaketarako dituen datuak eta baliabide teknikoak udalerraren esku jartzeko, udalak agintzen dizkion zuzenbide publikoko dirusarreraren kudeaketa exekutiboa aldundiaren gain utziz.

Anoetako Udalak 2008ko azaroaren 20an sinatu zuen xede berdinerako lehen hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Harrezkero araudia aldatu denez, beharrezkoa bilakatu da haren edukia indarrean dagoen esparru juridikoa egokitzea, zehazki, kudeaketa gomendioaren figurara.

Hala, Diputatuen Kontseiluak, 2024ko uztailaren 9ko bilkuran, erabaki zuen, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen arteko hitzarmen ereduaren eguneratzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Diputatuen Kontseiluaren 2004ko abuztuaren 30eko erabakiaren bidez onetsitako ereduaren oinarritutako hitzarmena indarrean duten udal eta entitateei jakinaraztea eguneratutako hitzarmenak automatikoki ordeztuko duela indarrean duten hitzarmena, baldintza eta termino guztietan, 2024ko abuztuaren 1etik aurrerako ondorioekin, baita hilabeteko epea ematea ere, eguneratutako hitzarmen hori eraginik gabe uztea eskatu ahal izateko.

Erabaki horri erantsitako hitzarmen ereduak ikusita, nabarmengarriak dira udalon alde planteatutako bi aldaketa edo hobekuntza: aurrenik, zerbitzuagatik aplikatu behar den kostua % 10etik % 5era jaitea (zazpigarren klausula); eta, bigarrenik, likidazioak eta funtsen transferentziak hileroko egitea, eta ez hiru hilean behin (zortzigarren klausula). Horrek nabarmen aurrezten ditu kostuak entitate horientzat, eta funtsak kudeaketa arrunterako xedatzea errazten du. Halaber, hitzarmenean izaera teknikoko zenbait zehaztapen sartu dira, hura indarrean egon den urteetan informatikaren esparruan izandako aldaketak aintzat hartuta eta praktika operatiboan agerian geratu diren gaiak erantzuteko (hirugarren klausula).

Horiek horrela, hitzarmenaren zirriborroa aztertuta, Idazkariak aldeko txostena egin zuen 2024ko uztailaren 18an.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udaltzako, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onestea Udalaren zuzenbide publikoko diru-sarrera propioak bide exekutibotik biltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Anoetako Udalaren arteko hitzarmen eguneratua eta, beraz, baimentzea horrek automatikoki ordezkatzeko Anoetako Udalak indarrean duen hitzarmena, baldintza eta termino guztietan, 2024ko abuztuaren 1etik aurrerako ondorioekin.

BIGARRENA. Ematea Alkateari ahalmena aipatutako hitzarmena Anoetako Udalaren izenean eta ordezkartzean sinatzeko, beharrezkoa balitz.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari, horretarako dagokion ziurtagiria helaraziz.

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

8.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2024ko maiatzaren 16tik uztailaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

EAJko bozeramaile Nuria Carbonellek Alkatetzaren ebazpen hauei buruz galdetu du:

- 316 zk.: kreditu-aldaketaren xedeari buruz galdetu du eta Idazkariak erantzun dio aurreko ekitaldiko gastuetarako aurrekontu-partida jakin batzuk kredituz hornitzeko beharragatik sartu direla kredituak, ekitaldia itxi eta likidatu delako.
- 324 zk.: kreditu-aldaketaren xedeari buruz galdetu du eta Idazkariak erantzun dio zenbait konpostontzi ordezkatzeko egindako kreditu-transferentzia dela, ondoren Alkateak azalpen zabalagoa emanik.
- 379. zk.: bertan erabakitako kontratazio-mahaiaren osaerari buruz galdetu du, ez baitator bat Irurako Udalarekin sinatutako hitzarmenean jasotakoarekin (2023ko urriaren 24ko osoko bilkuran onartutakoa). Idazkariak erantzun dio ez datorrela bat, baina 379. dekretuan jasotako kontratazio-mahaiaren osaera zuzena dela, kontratazio-organoa ezin baita kontratazio-mahaiko kide izan.

Era berean, aurretik ebatzitako kredituen transferentziaren ondorioz, 7. eta 9. kredituen aldaketei buruzko Alkatetzaren ebazpenik ez dagoela ohartarazi du. Idazkariak erantzun dio 7. kreditu-aldaketa 2024ko maiatzaren 28ko osoko bilkurako Udalbatzaren erabakiaren bidez ebatzi zela, eta, beraz, ez dagoela horretarako Alkatearen ebazpenik, eta 9. kreditu-aldaketa oraindik ez dela izapidetu.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

9.- 2023KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari, eta horrek, hasteko, esan du 21/2003 foru-arauaren 49.3 artikuluan xedatutakoak eragin duela puntu hori. Horren arabera, "*Aurrekontu orokorren likidazioa onartzea toki-erakundeko lehendakariari dagokio, kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, eta osoko bilkurari jakinaraziko zaio*".

Era berean, azaldu du, artikulua beraren lehenengo paragrafoaren arabera, 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa martxoaren 31 baino lehen eginda egon behar zela. Aurten ere 2023ko aurrekontuaren likidazioaren onarpena atzeratu egin da, 2024ko maiatzaren 23ko Alkatetzaren dekretuz onartu zelarik. Ebazpen horren kopia 2024ko maiatzaren 27an bidali zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari, “Gipuzkoa Ataria” plataformako “Gunea” aplikazioaren bitartez.

Aurten ere, 2022ko ekitaldiaren likidazioarekin bezala, ildo beretik jarraitu du Udalak, eta berriro ere udal-zerbitzuek egin dute 2023ko aurrekontuaren likidazioa, kanpoko enpresen laguntzarik gabe. Likidazioa egiterakoan, lehenengo urteetatik arrastatutako beste hainbat akats antzeman eta konpontzeaz gain, beste hainbat aurrerapauso eman dira, aipagarrienak:

- Dirulaguntzen kontrolean, jarraipenean eta kontabilizazioan hobekuntza nabarmena, lehenengo urtean hasitako lanarekin jarraituz eta hobetuz.

- 2023ko otsailean IZFEk martxan jarritako inbentarioko programa berria elikatzen jarraitu da.

- Erabili gabe zeuden zenbait AD ezabatu dira, adibidez: AD/ 1036-2023, AD/ 1029-2023... Horiek ezabatzeak gain, egungo ekitaldirako zenbait jarraibide ere diseinatu dira, horrelako kontabilizazio soberakinak lehenago detektatzeko, kontrolatzeko eta, hala badagokie, ezabatzeko.

- Aurrekontuzkoak ez diren kontuetan, aspaldi ageri zen 1.412,14 euroko kopurua zordunetan. Horren jarraipena egin da eta 2014tik datorren gerakina dela ondorioztatu da. Beraz, gerakin hori 2024ko ekitaldian ezabatzeko beharrezko izapideak jarraituko dira.

- Aplikatzeko dauden kontuen saldoei dagokienez, zenbait kontu antzeman dira, aspalditik arrastaka daramatzatenak zenbateko jakin batzuk, hala nola 554 kobrantza-kontua, datena eta sarrerena, 2.132,09 euro arrastatzen dituen, edo 555 ordainketa-kontua, nominena, 581,59 euro arrastatzen dituen. Komeni da kontu horiek 0an jartzea 2024ko ekitaldian, Udalaren finantza-egoeraren ahalik eta irudi fidelena eta errealena lortzeko.

2024ko ekainaren 18an, aitzitik, espedienteak Foru Aldundiak onartu ez izanaren jakinarazpena jaso zen, “Gunea” aplikazioan jasotako arrazoiketa ondorengoa izanik: *“Gastuetako 3. eta 6. kapituluetan behin betiko aurrekontua txikiagoa da onartutako obligazioak baino. Sarekon ekitaldia itxita dagoenez, fitxategietan eskuz egokitu beharko dira negatiboan geratu diren kapituluak, artikulua, kontzeptu ekonomikoak e.a., handitutako gastu kredituen ordainetan sarreretako 870 kontzeptua handituz”.*

Beraz, 2023 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari dagokion espedienteak ez du Gipuzkoako Foru Aldundiko onarpena lortu, eta itzuli egin da, goian adierazitako eran zuzen dadin.

Bada, Idazkari Kontu-hartzaileak 2024ko maiatzaren 23an egindako txostenaren lehen atalean erakusten denez, 2023ko ekitaldiko 3. kapituluaren (finantza-gastuak) eta

6. kapituluaren (inbertsio errealak) gauzatze-ehunekoa % 217,99 eta % 147,24 da, hurrenez hurren, biak % 100eko muga gaindituz. Datu horiek benetakoak dira, Anoetako Udalak 2023ko ekitaldian izan duen benetako jarduera islatzen dute eta, beraz, horrela jaso dira dagokion likidazioan eta txostenean, orain arte egin den bezala. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Idazkaritza Kontuhartzaitza honi jakinarazi dionez, aurrekontuen likidazioa ezin da onartu aurrekontu-kapituluen gauzatze-maila % 100etik bada, eta, nahiz eta datu horiek aurrekontuen exekuzio errealak islatu, ezin dituzte bere horretan helarazi dagozkien gainerako administrazio eskudunei. Horregatik, beraien esanetan, beharrezkoa da gainexekutututako kapitulu horien datuak eskuz zuzentzea, ekitaldia itxi aurretik dagozkien kreditu-aldaketak egin izan balira egokituko litzaizkiekeen zenbatekoak jasoz.

Gainexekuzio hori eragin duten aurrekontu-partida zehatzak honako hauek dira:

Hirugarren kapituluan:

- 1 0000.332.011.00.01 2023 (365) partida, "Epe luzeko maileguen interesak": aurrekontu-partida hori 300 euroko hasierako aurrekontu-kredituaz hornituta zegoen, baina partida horren gain onartutako gastu-betebeharrak -9.320,14 eurokoak dira. Gastu horiek banku-interesen igoeraren ondorio izan dira. Gainexekuzio hori ordeztzeko, ekitaldia itxi eta likidazioa egin aurretik izapidetu behar zen kreditu-aldaketa kreditu gehigarriena izango litzateke.

Seigarren kapituluan:

- 1 0000.601.153.20.01 2022 (979) partida, "Herriko hainbat bideetan zolaketak": 2022ko ekitaldiko arrastatutako aurrekontu-partida, kredituak eransteko kredituak aldatzeko espedientea ez izapidetzeagatik, ez zen hasierako kredituz hornitu, baina partida horren gain onartutako gastu-betebeharrak - 89.661 eurokoak dira:

- ⇒ Lasarbe ingurunearen erabilera garatzeko proiektua idaztea (Izarraitze Lorezaintza, S.L.L.): 14.520 euro.
- ⇒ Anoetako irisgarritasun planaren eguneratzearen gastu erdia (Javier Regalado Herrero): 7.562,50 euro.
- ⇒ Anoetako irisgarritasun planaren eguneratzearen beste gastu erdia (Itziar Rodriguez Oyarbide): 7.562,50 euro.
- ⇒ Anoeta udalerrian Etxaburu eta Errotaldea auzoak urbanizatzeko exekuzio proiektua (Endara Ingenieros Asociados, S.L.): 60.016 euro.

- 1 0000.601.153.30.01 2022 (980) "Plazako estalpea" partida: 2022ko ekitaldiko arrastatutako aurrekontu-partida, kredituak eransteko kredituak aldatzeko espedientea ez izapidetzeagatik, ez zen hasierako kredituz hornitu, baina partida horren gain onartutako gastu-betebeharrak 375.106,43 eurokoak dira:

- ⇒ Plazako estalkiaren obrarako, obra gauzatzeko Zuzendaritza eta Segurtasuna (Eneko Iturbe Errekondo): 9.365,40 euro.

⇒ Anoetako Herriko plazan estalkia eraikitze obra kontratua (Construcciones Aplibur, S.L.): 365.741,03 euro.

- 1 0000.622.920.00.01 2022 (981) partida, "Auditoria energetikoarengatik lanak": 2022ko ekitaldiko arrastatutako aurrekontu-partida, kredituak eransteko kredituak aldatzeko espedientea ez izapidetzeagatik, ez zen hasierako kredituz hornitu, baina partida horren gain onartutako gastu-betebeharrak - 13.310 eurokoak dira:

⇒ Udaletxeko eraberritze energetikoaren exekuzio proiektua idaztea (Eitzen Arkitektura, S.L.P.): 13.310 euro.

- 1 0000.623.920.00.02 2022 partida (984) "Udal eraikinetarako ekipamendua": 2022ko ekitaldiko arrastatutako aurrekontu-partida, kredituak eransteko kredituak aldatzeko espedientea ez izapidetzeagatik, ez zen hasierako kredituz hornitu, baina partida horren gain onartutako gastu-betebeharrak - 2.526 eurokoak dira:

⇒ Kiroldegirako "multipower" makina erostea (Kirol aukera, S.L.): 2.526 euro.

Udal honetan, 2024ko ekitaldira arte, inoiz ez da kreditu-aldaketarik izapidetu kredituak eransteko modalitatean, aurreko ekitaldietatik arrastatutako aurrekontu-partidak kredituz hornitzeko. Aurreko ekitaldian baimendu eta xedatu ziren baina erabat gauzatu ez ziren gastuetarako orain arte izandako jokabidea beti izan da aurrekontu berrian dagokion partida sortzea aurreko ekitaldiaren kargura, eta bertara dagokion AD arrastatzea. Jokabide horrek ez zuen inoiz inolako arazorik eragin likidazioetan, 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa arte.

Orain, ekitaldia itxi eta likidazioa egin ondoren, ezin dira "Sareko" aplikaziotik eskuratutako dokumentuak telematikoki birmoldatu, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak agindu bezala, eta horrek gainerako administrazio eskudunei datuak bidali ahal izan ditzan, beharrezkoa da "Gunea" aplikazioak igorritako dokumentuak eskuz zuzentzea, ekitaldia itxi aurretik egin beharko genukeen kreditu-txertaketaren itxura eginez.

Horiek horrela, aldatu beharreko dokumentuak eta horietan egin beharreko aldaketak ondorengoak dira (Gunea aplikazioak esleitutako nomenklaturaren arabera):

❖ **F.1.1.1 Saikapen ekonomikoaren laburpena 2023_10_1**

⇒ Sarrerak / 8. kapitulua (Finantza aktiboak) / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
524.156,70	841.682,37

⇒ Sarrerak / Sarrerak, guztira / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
3.295.281,15	3.612.806,82

⇒ Gastuak / 3. kapitulua (Finantza gastuak) / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
4.500,00	9.809,51

⇒ Gastuak / 6. kapitulua (Inbertsio errealak) / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
660.896,00	973.112,16

⇒ Gastuak / 3. kapitulua (Finantza gastuak) / % OOG/BBK

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
217,99%	100 %

⇒ Gastuak / 6. kapitulua (Inbertsio errealak) / % OOG/BBK

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
147,24%	100 %

❖ **F.1.1.2Sarreraarruntenbanakapena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.3Kapitaletafinantzaeragiketensarrererenbanakapena_2023_10_1**

⇒ 8. Finantza aktiboak / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
----------------------------	------------------

524.156,70	841.682,37
------------	------------

⇒ 8. Finantza aktiboak / 87: Diruzaintzako gerakina / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
524.156,70	841.682,37

⇒ 8. Finantza aktiboak / 870: Diruzaintzako gerakina / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
524.156,70	841.682,37

⇒ 8. Finantza aktiboak / 87001: Gastu orokorretarako DG / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
524.156,70	841.682,37

⇒ 8. Finantza aktiboak / 87002: Finantzaketa Lotuko DG / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
524.156,70	841.682,37

⇒ Guztira / Behin betiko aurreikuspenak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
525.956,70	843.482,37

❖ F.1.1.4Gastuarruntenbanakapena_2023_10_1

⇒ 3: Finantza gastuak / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
4.500,00	9.809,51

⇒ 3: Finantza gastuak / 33: Epe luzerako maileguenak / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
300,00	5.609,51

⇒ 3: Finantza gastuak / 332: Epe luzerako maileguenak / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
300,00	5.609,51

⇒ 3: Finantza gastuak / 33201: Interesak / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
300,00	5.609,51

⇒ Guztira / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
2.444.385,15	2.449.694,66

❖ F.1.1.5Kapitaletafinantzaeragiketengastuenbanakap_2023_10_1

⇒ 6: Inbertsio errealak / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
660.896,00	973.112,16

⇒ 6: Inbertsio errealak / 60: Inbertsioa produkziokoa ez den erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
125.203,00	437.419,16

⇒ 6: Inbertsio errealak / 60: Inbertsioa produkziokoa ez den erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura / 601: Azpiegitura eta urbanizazioa / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
125.203,00	437.419,16

⇒ Guztira / Behin betiko kredituak

Taulan jasotako zenbatekoa	Zenbateko zuzena
850.896,00	1.163.112,16

❖ **F.1.1.6 Sailkapen programen arabera_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.7 Transferentzien banakapena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.8 Diruzaintzagerakina_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.9 Diruzaintzako aurrekontua_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.10 Aurrekontuaren betetzemaiaren laburpena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.11Aurrekontuemaitza_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.12Langilekopuruaetaordainsariak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.13Zorbizia_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.14Datozen10urteetan zorraren epemugaren profila_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.B1SECdoikuntzak_Finantzaketa ahalmena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.1.1.B2Gastuaren arau aplikatzeko informazioa_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **A1Sortutako interes eta finantza gastuak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **A3Beste administrazio publiko batzuekiko eragiketen innt_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **A4Tokiko korporazioaren abalak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **A5Barne fluxuak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.



- ❖ **IB1 Salmentatikeratorkosarrerak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB2 Enpresapublikoekingindakoinbertsioak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB3 Tokikorporazioekerositakoakzioak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB4 Ezohikoeragiketak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB5 Aurrktuan Aplikatzeko Dauden Eragiket Hartzekodunak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB6 Finantzaerrendamentukontratuak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB7 Elkartepubliko-pribatuak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB8 Epekakosalerosketak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB9 Sarrerakitzultzeagatik hartzekodunak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB10 Ekitaldiansortutakointeresetaetekinak(sarrerak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.



❖ **IB11Araualdaketak(gastuaraua)_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **IB12BesteAdmziofuntsekinfinantzatutakogastuak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **IB13Saleandleasebackkontratuak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **IB14Emandakomailegukobraezinak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.2.1Barneeragiketendoiketak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F_3_0Ebaluaziotxostenerakodatuorokorrak_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F_3_2Aurrekontuegonkortasunarenebaluaziotxostena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F_3_3Gastuarauarenbetetztxostena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F_3_4Zorbiziarenmaila_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

❖ **F.3.5Ebaluazioetajakinarazpentsostena_2023_10_1**

✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **F_1_1_2-MRR-Diru-sarrera arrunten banakapena_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **EU_F_1_1_3-MRR-Desglose de Ingresos de Capital y Financieros referidos solo a los fondos recibidos del MRR_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **EU_F_1_1_4-MRR Desglose de Gastos Corrientes referidos solo a los fondos recibidos del MRR_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **F_1_1_5-MRR Kapital eta finantza gastuen banakapena MRR funtsak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **EU_IA5-MRR Flujos internos referidos a los Fondos MRR_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **EU_IB5-MRR Movimientos de la cuenta ACREEDORES POR OPERACIONES devengadas referidos a los fondos MRR_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **IB16_Jasotako EBko funtsak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **EU_IC1_Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergako itzulketak_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

- ❖ **F_MRR Gastu bateratuak IK_2023_10_1**
 - ✓ Aldaketarik ez.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak adierazitakoa azalduta, 2023ko apirilaren 5eko Alkatetzaren Dekretuaren berri eman da:

“...

DEKRETUA

Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		1.845.330,57
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		425.904,69
Aurrekontuko zordunak :	426.624,64	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.412,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	2.132,09	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		197.524,34
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	125.364,70	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	72.741,23	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	581,59	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		2.073.710,92
5.- Saldo kobragaitzak:		276.655,79
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		39.576,56
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.757.478,57

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-500.326,80
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-2.109,36

3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	470.508,28
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-13.939,34
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	-45.867,22

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	609.928,79
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	2.045.100,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	2.655.028,79

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

...”.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

10.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

337. DEKRETUA	
2024.05.28.	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.987,39 €
Kontzeptua	

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko maiatzeko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko maiatzaren 28an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

347. DEKRETUA

2024.06.04.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Fotokopien zerbitzu-kontratua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844610492	2024.05.08.	458,52 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko ekainaren 6an egindako eragozpeneko txostena.

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.
- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

355. DEKRETUA

2024.06.10

Hartzekodunak	IFZ / IFK
LANDARRI, S.L.U.	B20531448

Prozedura

Hilerriko zerbitzuak

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2404988045	2024.05.21.	389,29 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko ekainaren 10ean egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:

Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horiei estaldura ematen dien kontratazio-prozedurarik; izan ere, azkeneko kontratu txiki “irregularra” (urtez urte kontratu txikien bidez kontratatzen etorri baita) 2021eko abenduaren 31n bukatu zen eta ez da beste kontraturik egin, are gutxiago lizitaziora atera.

357. DEKRETUA

2024.06.12

Hartzekodunak	IFZ / IFK
ALKARTASUNA, S.L.	B75197749

Prozedura

Zilibito Records musika taldeari afaria

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
FN-786	2024.05.26.	130,40 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko ekainaren 12an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

\\...

Alde batetik, **musika-talde bati afari bat ordaintzea ezin da protokolo-gastutzat hartu**, gorago jasotako arrazoiengatik, orain modu laburtuan berriro errepikatuko ditudanak. Protokolo- eta ordezkari-tza-gastutzat zer hartu behar den zehazten duen araurik ez dagoen arren (abenduaren 3ko EHA/3565/2008 Agindua, 226 kontzeptua, "Askotariko gastuak", 226.01 azpikontzeptua, "Protokolo- eta ordezkari-tza-arretak"), Administrazioaren barne- eta kanpo-kontrolerako organoek interpretazio ugari egin dituzte hori zehazteko.

Hala, Aragoiko Gobernuaren Kontu-hartzaile-tza Nagusiaren 1014ko urtarrilaren 15eko 2. lan-dokumentuaren arabera, protokolo-gastuen eta ordezkari-tza-gastuen fiskalizazioari buruzkoa, nahiz eta kontzeptu juridiko zehaztugabea izan, horrek ez du esan nahi erabilera diskrezionala denik, eta, beraz, administrazio-jardunaren printzipio orokorren arabera aztertu behar dira, eta gastu publiko orori buruz predikatzen diren baldintza orokor batzuk bete behar dituzte.

Era berean, Kontuen Auzitegiaren txostenak, 1997ko martxoaren 4an Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak, 226.1 azpikontzeptuari egotz dakizkiokeen gastuen fiskalizazioari buruzkoak, honako hau dio: "gastu horiei eragiten dien arau espezifikorik ez dagoenez, gainerako gastu publikoak arautzen dituzten arau orokorren mende geratzen dira", eta honako hau ondorioztatu du: 226.01 partidari egoztea tokiko agintari-ek "beren eginkizunak betetzean eta Administrazioaren onurarako edo onurarako direnean" egin behar dituzten protokolo- eta ordezkari-tza-gastu sozialak. "Ildo horretan, arau erregulatu-zaileek printzipio hauek izan beharko lituzkete oinarri:

- Protokolo- eta ordezkari-tza-egintzen ondorioz gertatzea;
- Estatu-ko agintarien, erakunde autonomoen edo erakunde publikoen eginkizunak betetzeko beharrezkoak izatea;
- Administrazioaren onurarako edo erabilgarritasunerako izatea;
- Eskudirutan edo gauzatan ordaintzea ez ekartzea;
- Gastu guztiak egiaztagiri original eta osoen bidez egiaztatzea".

Era berean, Estatu-ko Kontu Hartzaile-tza Nagusiak, 2004ko apirilaren 12ko txostenean, honako hau adierazi zuen laneko bazkari eta bazkarien gastuetarako: "fakturarekin batera justifikazio-ohar bat aurkezten denean, non gastua kudeatzeko agintari-tza eskudunak adierazten duen jatetxeko gastuak lan-bileren ondorioz baino ez direla gertatu, baina bazkaria eragin zuen ekitaldiaren edo ekitaldiaren deskribapen zehatzik egin gabe, ezta bazkari-ko parte-hartzaileen nortasun espliziturik ere, ezin da egiaztatu gastua egokia den edo aurrekontu-kredituen erabileran desbideratzerik dagoen".

Aurreko guztiaren ondorioz, protokolo-gastuak honako hauek dira: zeremonia edo ospakizun instituzional-ek sortutakoak, beste administrazio publiko batzuetako agintarien arteko bisita ofizialek sortutakoak, eta horiek dakartzaten gastuak, hala nola ekitaldiak edo harrerak antolatzeko zerbitzuak edo gastuak, bazkariak, sortak eta lore-apaingarriak, oroitzapenezko edo oparizko liburuak, herri-administrazio-koak ez diren pertsonen argazkiak, bidaiak eta hotelak... Jar-duera horrek helburu instituzionala izan beharko du, eta nahitaez Udalaren helburuekin lotuta egin beharko du. Aitzitik, ez dira protokolo-ko gastutzat hartuko kontsiderazio pertsonaletik edo sozialki

oso aintzat hartutako talde batetik hurbilen daudenak, baina Administrazio publikoaren xedarekin inolako loturarik ez dutenak.

Kasu honetan aztergai dugun kasuan, herriko festetarako kontratatutako musika-talde bati afaria ordaintzea, non ezin den interpretatu gastuaren eta helburu publikoaren arteko lotura dagoela, ez dela jarduera bat helburu instituzional batekin eta ez dagoela Udalaren helburuekin lotuta, ezin da protokolozko gastu gisa sartu.

Beste aldetik, musika-talde bati afari bat ordaintzea, emandako zerbitzuengatik dagokion faktura ordaintzeaz gain, nahiz eta Udalarentzat kontraprestazio zuzena izan, teknikoki **ezin da dirulaguntza gisa kalifikatu**, legez halakotzat jo ahal izateko baldintzetako bat betetzen ez delako: dirua «onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea», Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 2.1.a) artikulua eskatzen duenaren arabera.

Azkenik, musika-talde bati afaria ordaintzea ezin da ordainsaritzat hartu ere; izan ere, Udalaren eta musika-taldearen artean ez dago lan-harremanik taldearen dietak Udalak ordain ditzan.

Arazo nagusia da, azkenean, taldeak kobratutako zenbatekoa 2024ko maiatzaren 28an aurkeztutako 2024-0228 fakturan jasotakoa baino handiagoa dela praktikan. Beraz, aurrekontuaren ikuspegitik, musika-taldeak zerbitzu-kontratu berean fakturatu behar zituen gastu guztiak, eta zerbitzu horrek eragindako gastu eta irabazi guztiak bildu behar zituen ordainsarian. Eta hori, printzipioz, ez dagoelako gastu horiek estaltzen dituen lege-figurarik, udal batek ez duelako zertan taldearen dieten gastuak ordaindu, taldeak zerbitzuagatik jasotzen duen ordainsariaren «konpartimentu estanko» bat balitz bezala.

Are gehiago, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 78. artikulua honako hau xedatzen du:

“...

Uno. La base imponible del impuesto estará constituida por el importe total de la contraprestación de las operaciones sujetas al mismo procedente del destinatario o de terceras personas.

Dos. En particular, se incluyen en el concepto de contraprestación:

1.º Los gastos de comisiones, portes y transporte, seguros, primas por prestaciones anticipadas y cualquier otro crédito efectivo a favor de quien realice la entrega o preste el servicio, derivado de la prestación principal o de las accesorias a la misma

...”.

Ondorioz, joan-etorrien gastuak, pertsona juridiko horrek bere zerbitzuak ematean egindako egonaldi- eta mantenu-dietak (horien zenbatekoa bere izenean egindako fakturretan dokumentatuko da) zerbitzuen bezero hartzaileri (hau da, Udalari) helarazi ahal izango zaizkio, eta BEZa dagokion ehuneko 21eko tasari jasanaraziko zaio. Hala, mantenu- edo ostatu-dietei dagozkien gastuen faktura batzuetan kontratistari BEZaren tasa murriztua aplikatzen bazaio ere, kontzeptu horiek bezeroari fakturatzekoan ehuneko 21eko tasa orokorrera jasanarazi beharko ditu. Beraz, mota horretako gastuak (dietak, ostatua, mantenua) zerga-oinarriaren beste elementu bat bezala sartu beharko dira, dela zerbitzuaren kontzeptuaren barruan, dela fakturan modu independentean adierazita.

Hortaz, kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari-kontuhartzailerekin honetako gastu-espedituaren izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

...//.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.987,39 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko ekaineko aparteko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko ekainaren 17an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutaturako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

377. DEKRETUA

2024.06.27.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.987,39 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko ekaineko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko ekainaren 26an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutaturako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

380. DEKRETUA

2024.06.28.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Serbidorearen segurtasun kopien mantenua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
-------------------------	-----------------------	-------------------------------

P24041147

2024.04.03.

291,92 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko ekainaren 28an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilia. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;
- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Gainera, ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

381. DEKRETUA

2024.06.28.

Hartzekodunak

IFZ / IFK

TOLOMENDI

G20326237

Prozedura

2024 – 2. hiruhileko IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua

Faktura zenbakia

Bidalketa data

Zenbatekoa (BEZ barne)

F-42

2024.06.17.

2.090,58 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko ekainaren 28an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gaintu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpoko, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkerotik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikusatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

-
- Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatiko gastuak.
-

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak berak egindako eragozpenezko txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri emateaz bukatzean, Jaime Peon Ormazabalek, EAJ taldeko zinegotziak, 357. dekretuaren gainean galdetu du, zehazki, zertan dautza protokolozko gastuak, zeintzuk dira Udalak egin ohi dituen protokolozko gastuak eta, 357. dekretuaren kasuan, zergatik Alkatetzak onartu duen protokolo-gastu hori. Alkateak galderei erantzun die, adieraziz, besteak beste, Udalak egin ohi dituen protokolo-gastuak direla, adibide gisa, Death Cafeko tailerretara joaten direnentzako pastak, festetako jan-edanak, jubilatuen urteko bazkaria, auzolanak antolatzen direnean ematen diren hamaiketakoak... Jaimek erantzun du bere talde politikoak ez duela inoiz jarduera horiei buruzko informaziorik jasotzen, eta, Udalaren protokolo-ekitaldiak izanik, uste duela haiek ere jarduera horien berri izan beharko luketela, jarduera horietan parte hartu ahal izan dezaten. Horregatik, alkateari eskatu dio hemendik aurrera bere talde politikoa informatu dezala Udalak proposatzen eta egiten dituen protokolo-jarduera hauei buruz. Alkateak baieztatu erantzuna eman dio eskaerari, eta bere taldeak auzolanetan parte hartzea ere interesgarria litzatekeela iradoki dio.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, bestelako galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

11.- PALESTINARI BURUZKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

EH Bildu alderdiko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, eztabaidatzeko eta, hala balegokio, onesteko:

“...

PALESTINARI BURUZKO MOZIOA

ZIOEN ADIERAZPENA:

Joan den maiatzaren 15ean, NAKBAren 76. urteurrena bete zen eta urtemuga horrek gogorarazten digu palestinar herriak hamarkadak daramatzala Israelen apartheid erregimenaren mende. Egoera are larriagoa da 2023ko urriaren 8tik Israelek Gazako zerrendaren eta Palestinako lurralde osoaren aurka egiten duen eraso militarren ondorioz.

Maiatzaren 24an Nazioarteko Justizia Gorteak ebatzi zuen Israelek Rafah-ren (Gazako hegoaldean) gaineko bere eraso militarra “berehala” geldiarazi behar zuela. Hegoafrikak Gorteari eskatu zion ebazpen hori larrialdi neurri gisa hartzea, Israelek Rafahen aurrera



ANOETAKO
UDALA

eramaten ari den jarduerak operazio genozida bat direla adieraziz eta palestinar herriaren biziraupena bera arriskuan jartzen dutela.

CIJek urtarrilaren amaieran eskatu zion Israeli Gazan laguntza humanitarioa sartzen uzteko, eta berretsi zuen agindu hori martxoaren amaieran. Horrez gain Israeli eskatu zion Gazako gerran "genozidio-egintzak saihesteko bere esku dauden neurri guztiak" har zitzala, eta txosten bat aurkez zezala, auzitegiak emandako aginduak aplikatzeko hartutako neurri guztiekin, hilabeteko epean. Gaur da eguna oraindik eskaera hori ez dela gauzatu.

Hori guztia egin da Hegoafrikako gobernuak 2023ko abenduaren 29an Nazioarteko Justizia Gortearen aurrean irekitako prozesuaren esparruan, Israel 1948ko Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa urratzen ari zela argudiatuta, 2023ko urriaren 7tik aurrera abiatutako operazio militarrekin.

Operazio honen ondorioz, Israelek 36.000 pertsona baino gehiago hil eta 80.000 baino gehiago zauritu ditu, horietatik % 70 emakumeak eta haurrak. Gazako biztanle gehienak beren bizitokia nahitaez lekualdatzera behartuak izan dira. Hein handi batean Zerrendaren hegoaldera desplazatuak izan dira, Rafah-era. Lurralde horrek ez ditu lekualdatutako pertsonak artatzeko behar diren gutxieneko azpiegitura eta baliabideak.

Bitartean, laguntza humanitarioa dakarten ehunka kamioik, batez ere elikagaiak, Egipto eta Gaza arteko muga blokeatuta jarraitzen dute, Israelen onespeneraren zain. Egungo erantzun humanitario guztia, neurri handi batean, UNRWAn ahalmenaren arabera da. Baina Nazio Batuen Agentzia kolapsoaren ertzean dago eta UNRWAn 189 kideren heriotza baieztatu da.

Genozidioa salatzen duten protestak eta munduan zehar Palestinako herriari elkartasuna adierazten dioten adierazpenak ere aipagarriak dira. Euskal Herrian, herritarrek Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzeko eta berehalako su-etena eskatzeko mobilizazio asko gauzatu dituzte. Gernika-Palestina edo Yala Nafarroa plataformak erreferente bihurtu dira herri palestinarren aldeko borrokan eta, beraz, Israel egiten ari den genozidioaren aurkako borrokan.

Bestalde, mundu osoan zabaltzen ari den ikasleen elkartasun-olatu Euskal Herrira ere iritsi da, eta dozenaka ikaslek Palestinarekiko elkartasun-ekimenak garatu dituzte, UPV/EHU edo NUPen kanpaldiak, batzarrak eta mobilizazioak eginez.

Horregatik guztiagatik, Anoetako Udalak:

1. Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzen du, eta elkartasuna eta konpromisoa adierazten dio herri palestinarri.
2. Israeli Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzea eskatzen dio, baita NBERen ebazpenak eta Nazioarteko Justizia Gorteak emandako ebazpenak ere.
3. Israeli irmoki eskatzen dio korridore humanitarioak irekitzeko eta Gazan eta Zisjordanian sua berehala eta modu iraunkorrean eteteko.

4. Irlandak, Norvegiak eta Espainiako estatuak Palestina estatu gisa ofizialki aitortzeko ekimena babesten du, euskal gizarteak aspalditik eskubide hori aitortzen diola aintzat hartuta.
5. UNRWA Nazio Batuen Agentziari babesa ematen dio eta Palestinan egin behar duen ezinbesteko lana aitortzen du.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuei, Nafarroako Foru Erkidegoari, Estatuko Gobernuari eta nazioarteko gainerako eragileei eskatzen die Palestinarekin dauden lankidetzaproiektuekin jarraitzeko eta indartzeko, eta eremu horretan lan egiten duten erakundeei babesa emateko eskatzen die, hala nola UNRWari eta beste erakunde etaekimen sozial batzuei.
7. Europar Batasunari eta, oro har, Nazioarteko Erkidegoari ahaleginak areagotzeko, bahitu eta preso guztiak askatzera eta herri palestinarrarentzat bake justu eta iraunkorra lortzera bideratutako kudeaketa diplomatikoak bultzatzeko eskatzen dio.
8. Herri palestinarrak estatu burujabe eta bideragarria izateko duen eskubidea berresten da.
9. Bere babesa ematen die Gernika-Palestina eta Yala Nafarroa Palestina eta Palestina plataformei, eta Palestinan giza eskubideen eta bake justu eta iraunkorraren defentsan egiten ari den lan garrantzitsua babesten du, baita Israel herri palestinarraren aurka egiten ari den genozidioa salatzen ere.

...”.

Behin Alkateak mozioaren gaineko azalpena bukatuta, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonellek, galdetu du ea mozio horretan sar daitezkeen beraiek proposatutako hiru puntuak, Villabonako Udalak xede berarekin onartutako mozioan sartu direnak, eta oso garrantzitsuak eta beharrezkoak iruditzen zaizkienak EH Bildu taldeak proposatutako mozioaren gabezia batzuk betetzeko. Gehitzeko proposatutako hiru puntuak ondorengoak dira:

“...

1. Uste du Israelgo Estatu biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertakarik justifikatzen, ezta Hamasek iragan urriaren 7an Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindako eraso terrorista gordinak, onartezinak eta gaitzesgarriak direnak. Israelen erasoek milaka hildako, Gazako lurraldearen erabateko suntsipena eta biztanleria osoaren nahitaezko desplazamendua eragiten ari dira.
2. Su-eten osoa eta mugagabea, Gazako eremuan oinarritzko horniduren blokeoa etetea, herritarrak euren lurraldera itzultzea eta Zisjordaniako palestinarren aurkako erasoak amaitzea eskatu du, urriaren 7tik gogortu egin baitira.
3. 2023ko urriaren 7tik bere esku dituen bahitu guztiak berehala askatzeko eskatzen dio Hamasi.

...”.



Alkateak EAJ taldeak egindako eskaera atzera bota du, proposamena epez kanpo aurkeztu duelako. Beraz, Udalbatzak EH-Bilduk aurkeztutako mozioa bozkatu du horrek hasiera batean proposatutako moduan, EAJ taldeak proposatutako aldaketarik gabe, eta hau izan da emaitza:

EBAZPENA

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Eloseggi Artola (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 5 bozka.

ABSTENTZIOAK: Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea), Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea), Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea) eta Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea). Guztira, 4 abstentzio.

Ondorioz, gehiengoz onartua izan da mozioa.

GALDE-ERREGUAK

12.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:40etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.